



IKASTAROA: **Barrez lehertu behar dut! Umore-tailerra ikuspegi** **feministatik** **(2022-01)**

Tailer honetan umorea eta ikuspegi feminista uztartuko dira.

Zeri buruz egiten dugun umorea aztertuko dugu eta emakumeari umore-sortzaile gisa espazioa emango diogu.

Halaber, barre egitearen sentsazioa sentitzea bilatuko dugu, umorea bizitza ulertzeko dugun moduaren parte izan dadin.

Helburuak:

- Genero-sistemak umorean duen eraginaz jabetzea.
- Sormenezko esperientzia bat bizitzea.
- Talde-harremanak sustatzea.

Edukiak: emakumeak umore-hartzaile, umore-objektu eta umore-sortzaile gisa, pertsona sortzailea izatea, jolasa, plazerra eta barrea eta proposamen praktikoak.

Tramitatzailerak: Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua, Emakumearen Mahaiaren lankidetzaz.

Nork emango du: Beatriz Egizabal eta Paki Caballero.

Hartzaileak: 18 urtetik gorako emakumeak.

Non eta noiz: Andretxea. 2022ko maiatzak 21.

Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Ikastarora ekarri behar den materiala:

Ez dute materialik ekarri behar.

Ikastaroaren prezioa:

- Eibarren erroldatutako emakumeentzat **8€**.
- Eibarren erroldatuta ez dauden emakumeentzat **10€**.

Ikastaroaren ordainketa: matrikula, ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Ikasle kopurua: gutxienez 6 ikasle, etagehienez 10 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: gaztelania.

Aurrematrikula: ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da 2022ko martxoaren 1etik 31ra (biak barne). Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/umore2022-01>



Kudeaketa arauak:

Matrikularako izena eman dutenen pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), **apirilaren 8an**.

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopurua ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira. Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **apirilaren 8tik aurrera**.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketabidez egingo da. Zozketa Gizartekintzan (Berdintasun Zerbitzua) egingo da. Honahemen zozketa-eguna eta ordua: Eguna: **apirilaren 7an**.

Ordua: 13:00. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztien zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat ematen zaio.
- Zaku baten sartzen dira zenbaki guztiaketa zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik aurrerako zenbakiak dituztenak izango dira, ikastaroa emateko dauden leku guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus) egongo da **apirilaren 8tik aurrera**.

Onartu diren pertsonen zerrenda argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak:

Aurre-inskripzioen onarpenaren abisua jasoondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da eta ikastaroko lehen egunean dokumentu hau aurkeztu beharko da:

- **Barrez lehertu behar dut! Umore-tailerra ikuspegi feministatik** ikastaroan izena emateko inprimakia behar bezala beteta eta sinatuta.

Informazio gehiago: 943 543 938 telefonoan.